

Bidaian:

- Bereiztuta eraman dirua eta dokumentazio pertsonala.
- Saia zaitez diru-kopuru handirik ez eramaten.
- Gorde diru-kopuru bat larrialdietarako leku seguru batean, eta gainerako dirutik bereiztuta.

Aireportuan edo geltokian:

- Ez galdu begien bistatik zure gauzak (itxaron-gelan, kafetegiak, etab.) eta fakturatzen ari zarenean adi egon zuregana edo zure taldera hurbiltzen diren pertsonekin.
- Ez eraman beste pertsona batzuen gauza, opari edo paketerik zure ekipajea. Ez fakturatu zure izenean beste pertsona batzuen ekipajerik.

Errepidean:

- Atsedean hartzeko, saihestu jende gutxi dagoen lekuak.

- Ez utzi baliozko objekturik begi bistan.
- Martxan, ez kasurik egin beste gidari batzuek ibilgailua gelditzeko egindako ohartarazpenei, egiaztatu ezin dituzun ibilgailuaren anomaliei buruz.

Iritsi gara:

- Hotelera iritsitakoan aparkatu ibilgailua jende asko dabilen toki batean, ostatu hartuko duzun lekutik gertu.
- Utzi balio handiko objektuak gelako kutxa gotorrean.
- Zaindu zure objektu pertsonalak une oro.
- Txangoetan ez utzi objekturik ibilgailuan; horren ordez, aldean eraman eta gorde maletategietan.
- Hondartzetan, igerilekuetan edo aisialdirako tokietan zure objektu pertsonalak kontrolpean izan une oro, eta ez utzi pertsona ezezagunen eskuetan.
- Jende asko biltzen den tokietan jarri arreta berezia zure objektu pertsonalei.

www.ertzaintza.net en gehiago



SEGURIDAD EN VACACIONES

EN VIAJE Y DESTINO



HERRIZAINGO SAILA
Segurtasun Sailordetza
Ertzaintza

DEPARTAMENTO DE INTERIOR
Viceconsejería de Seguridad
Policía